

## Donostian, 1996ko urtarrilaren 26an (Arratsaldekoa)

Haritschelhar, J., euskaltzainburua  
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea  
Knörr, E., idazkaria  
Altuna, P.  
Azkarate, M.  
Charritton, P.  
Davant, J.L.  
Diharce, X.  
Goenaga, P.  
Kintana, X.  
Larre, E.  
Ondarra, P.  
Peillen, Tx.  
San Martin, J.  
Sarasola, I.  
Villasante, L.  
  
Aduriz, J.A.  
Aranburu, X.  
Arbelbide, X.  
Atxaga, M.  
Idiart, R.  
Lizundia, J.L.

### Jean Baptiste Etxeberry

Emile Larrek irakurri du gero Jean Baptiste Etxeberry euskaltzain ohorezko zenaz bere txostena. Donostirir 1903an sortu zen Etxeberry. *Eskualduna*, *Gure Herria* eta *Almanaka* haren lanez daude ederki hornituak. Oso ezaguna zen, besteak beste, *Almanakan* egiten zuen *Betegailua* zeritzana. *Zeruari buruz* (1960), *Michel Garicoitz sailduaren bizia eta bertuteak* (1962) eta *Frantziako erregina* (1966) liburua aipatu ditu Larre jaunak orobat bere txostenean. P. Charrittonek eta J. Haritschelharrek egin dituzte gero Etxeberriz bere iruzkinak.

### Orotariko Euskal Hiztegia

Ibon Sarasolak aurkeztu du ondoren Euskaltzaindiaren egitasmo honetaz bere txostena. 8. liburukia kalean delarik, orain arteko lanaz hausnarketa egin du Sarasola jaunak. Azpimaratu du, bereziki, azken lau liburukiek sarrera gehiago dituztela, lehenekin alderatuz. R.M. Azkueren eta Placido Mugicaren hiztegi handiekiko konparaketa egin du

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1996ko urtarrilaren 26an, arratsaldeko 4etan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamenean aipatzen diren euskaltzain oso eta urgazleak etorri dira.

Lehendabizi, goizeko batzarraren berri eman du E. Knörr idazkariak.

### Gabriel Lertxundi

Xabier Diharce “Iratzeder” euskaltzainak Gabriel Lertxundi urgazle zendu berriaren hilberri txostena irakurri du, bizitzaz eta lanez xehetasun ugari emanaz. Psalmoak eta liturgiako beste testuak aipatu ditu bereziki, poesia eta hitz-lauzko idatziak aiantzi gabe. J.L. Davant, J. San Martin, J. Haritschelhar, J.L. Lizundia, P. Charritton, P. Altuna eta E. Larrek parte hartu dute ondoko solasean.

halaber I. Sarasolak. Argitaletxearekin dauden zailtasunak aipatu ditu, bai eta lana hobeki egiteko behar diren giza-baliabideak eta lekuaren aldetikako baldintzak ere.

Euskaltzainburuak esan du egitasmo hau dela Akademiak eskuartean duen garrantzitsuena. P. Altunak eta J. San Martinek hitza hartu dute ondoko solasean. Hango eta hemengo hitzei buruzko informazioa biltzeko paper bat inprimatzea iradoki du E. Knörrrek. I. Sarasolak erantzun du informazio guztia eskertzekoa dela, baina zati bat bakarrik erabil litekeela.

Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua

Endrike Knörr,  
idazkaria